



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
The University of the Basque Country

**Instituto Vasco de Criminología  
Kriminologiaren Euskal Institutua**

**(IVAC-KREI)**

**TORTURAREN IKERKETA PROIEKTUAREN PROPOSAMENA**

2014ko ekaina

**AURKIBIDEA**

- 1.- Proiektuaren justifikazioa.
- 2.- Helburuak.
- 3.- Proiektuaren faseak, metodologia eta lantaldea.
  - 3.1.- Lanaren oinarria.
  - 3.2.- Arazoaren dimentsiorako hurbilketa globala: errolda bat egitea.
  - 3.3.- Salaketen sinesgarritasun globalaren balorazioa.
    - 3.3.1.- Estatistikaren ikuspegitik. Espediente judizialak eta salaketa sozialak berrikustea.
    - 3.3.2.- Fidagarritasunaren aditu-azterketen aldetik. Istanbulgo Protokoloa.
  - 3.4.- Kasu adierazgarri batzuei buruzko azterketa kualitatiboa.
  - 3.5.- Ondorioak eta gomendioak.
- 4.- Ekintzen aurrekontua eta laburpena.
- 5.- Kronograma.

## 1.- Proiektuaren justifikazioa.

Terrorismoaren biktimen elkartasunerako 32/1999 Legea onartu zenetik aurrera batez ere<sup>1</sup>, ugari izan dira indarkeriaren biktimei aitorpena eta erreparazioa emateko politika bat garatzeko ekimenak. Euskal Autonomia Erkidegoan, Juan José Ibarretxe (2005-2009) eta ondoren Patxi López (2009-2012) lehendakarien gobernuekin, Eusko Jaurlaritzak *terrorismoaren biktimei* – ETAREN biktimei bereziki– errekonozimendu publikoa agertzeko ekitaldiak hasi zirenetik, eztabaida publikoaren barruan izan da giza eskubideen urraketa larri horien eta beste batzuen biktimen errekonozimendua. Horrek guztiak agerian utzi zuen ordura arte politika publikoan aintzat hartzen ez ziren beste biktima batzuei ere errekonozimendu publikoa egin beharra zegoela, Estatuko segurtasun-indarrek egindako giza eskubideen urraketen biktimei, esate baterako.

Aurreko legegintzaldian (2009-2012), Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarreko hainbat indar politikok lagunduta, honako hau onartu zuen: 107/2012 Dekretua, *Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa. Era horretan*. 1960 eta 1978 artean bizitzeko eskubidearen edo osotasun fisiko eta psikologikoaren urraketak pairatu zituzten polizia-indarren biktimei errekonozimendua agertzeko esparru bat eta estaldura eskaintzen ziren. Lortutako akordio politiko handiak 1979ren osteko biktima horientzako lege-esparru berri bat garatzea ere jasotzen zuen, eta esparru hori oraindik garatu gabe dago. Horiek horrela, eztabaida politikoaren eta gure herrialdean egin beharreko giza eskubideen kulturaren eraikuntzaren barruan egon dira Estatuko agenteek eragindako torturen eta tratu txarren ondorioak zein zabaltasuna.

Azken 30 urteotan, Amnistia Internazionalaren<sup>2</sup> txostenek, Tortura Prebenitzeko Europako Kontseiluko Batzordearen<sup>3</sup> txostenek, Nazio Batuen Kontalari Berezien txostenek<sup>4</sup> edota salaketan eta era horretako praktiken berri ematen

---

<sup>1</sup> Estatu mailako araua. Urte horretan bertan onartu zen abenduaren 3ko 1974/1999 Errege Dekretua, Terrorismoaren Biktimei Aitorpen Zibila egiteko Errege Aginduaren Erregelamendua onartzen duena.

<sup>2</sup> Amnistiak Espainiako Estatuari buruz egindako lehen txostenak espetxeetako torturak izan zituen aztergai 1972an. Espainia 1983ko maiatza/ekainean bisitatu zuen AIren misio batek torturaren eta tratu txarren etengabeko erabilera baieztatu zuen (*Tortura* txostena, 1984, 187. or.). Amnistia Internazionalak txosten hau argitaratu zuen: *Espainia: gatza zaurian. Poliziaren zigorgabetasuna*. Eta bi urte geroago, 2009an, haren eguneratze bat. 2004an, *Espainia: bidegabekeria bikoitza amaitzea. Erreparaziorik jaso ez duten torturaren eta tratu txarren biktimak*.

<sup>3</sup> Horren adibide dira Batzordeak Espainia bisitatu ondoren egindako txostenak: besteak beste, 2007ko irailaren 19tik urriaren 1era; 2005eko abenduaren 12tik 19ra; edo 1997ko urtarrilaren 17tik 19ra.

<sup>4</sup> Hauek nabarmendu behar ditugu, besteak beste: Torturaren gaiari buruzko Theo Van Boven kontalari bereziaren txostena, Espainiarako bisita, 2004; Terrorismoaren aurkako

duen Nazio Batuen Torturaren aurkako Batzordearen oharrek, prebentzioko neurriak abiaraztea ez ezik, arlo judizial eta sozialean ikerketa eraginkor egokia egitea ere gomendatu dute, bai eta haien biktimei errekonozimendua eta erreparazioa eman beharra ere. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ere onartu du zenbait kasutan ez dela ikerketa judizial eraginkorrik egon. Intelektualen<sup>5</sup> edo epaileen sektore batzuek, udalek zein ikerketa independenteek ere salatu dute hainbatetan tortura maiz gertatzen dela, eta prebenitu eta eraginkortasunez ikertu beharra zegoela.

Horiek horrela, Eusko Jaurlaritzak, 2013-16 aldirako Bake eta Bizikidetzako Planean, gure gizarteak arlo horretan duen egoeraren gaineko diagnostiko bat egitea garrantzitsua dela nabarmendu du. Horri esker, giza eskubideen urraketa horietan eta beste batzuetan argi egin ahal izango dugu, bai eta gauzatu ere giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean ezarritako egiaren, justiziaren eta erreparazioaren printzipioak.

Horren guztiaren ondorioz, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak torturaren fenomenoak hainbat garaitan izandako egiazko eraginari buruzko ikerketa zorrotz eta independente bat agindu du, ondoren egokiak diren errekonozimendu eta prebentziorako neurriak hartu ahal izateko.

Agindutako azterlanaren gogoeta orokorretan, arazo honi ikuspegi zientifiko batetik heltzearen garrantzia adierazi zen, eta bi aldi handi ezarri ziren ondorengo beste aldizkotasun batzuk alde batera utzita (frankismo berantiarra eta Konstituzioa onartu ondorengo aldia), hauxe jasota<sup>6</sup>:

*«2009ko martxoan Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zuen torturari buruzko Azterketa Zientifikoaren Txostenaren edukia izango da ekimen horren eta aginduko den ikerketaren abiapuntua. Eduki horretan oinarrituta, ekimena honako irizpide hauen arabera bultzatuko da:*

- *Azterketa egitean eta azterketaren proiektzioan bi aldi bereiziko dira: lehena, 1960tik 1978ra bitarte; eta bigarrena, 1978tik 2013ra bitarte. «Istanbulgo Protokoloa» eta Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Gokomisarioaren Bulegoaren «Manual para la investigación y*

---

borrokan giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak sustatzeko eta babesteko Martin Scheinin kontalari bereziaren txostena, Espainiarako bisita, 2008.

<sup>5</sup> Adibidez, 1983an, «Torturaren kontrako proposamen egonkortzailea» deitutakoan, hauxe adierazi zuten José Luis L. Aranguren, Carlos Castilla del Pinok, Gonzalo Martínez-Fresnedak, José María Mohedanok, Marc Palmése, José Ramón Recaldek, Rafael Sánchez Ferlosiok eta Fernando Savaterrek: «Los abajo firmantes, ciudadanos de conciencia política independiente. Considerando que hay sobrada evidencia de que en España se practica la tortura en comisariás, reformatorios y cárceles, de manera frecuente y extendida...» (*Ondoren sinatu dugunok, kontzientzia politika independenteko herritarrok. Kontuan hartuz Espainian polizia-etxe, erreformatario eta espetxeetan maiz eta zabal torturatzen den ageriko probak daudela...*).

<sup>6</sup> Ikus 6. ekimenaren fitxa 2013-16 aldirako Bake eta Bizikidetzaren Planaren «Torturari buruzko ikerketa eta ekintza», 46. orria:

*documentación eficaces de la tortura y otros tratos o penas crueles o degradantes» eskuliburua erabiltzea erreferentzia-tresnatzat.*

- *Tokiko beste erakunde batzuen lankidetzeta eta aholkularitza sustatzea, hala nola, Arartekoa eta unibertsitateak (KREI Kriminologiaren Euskal Institutua).*

Esandako aurrekariez gain, *Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketei buruzko oinarrizko txostena (1960-2013)*<sup>7</sup> dugu, Manuela Carmenak, Jon Mirena Landak, Ramón Múgicak eta Juan M<sup>a</sup> Uriartek 2013ko ekainean Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren enkarguz egina. Gure herrialdean pairatutako asmo politikoko indarkeriaren testuinguruan, 1960tik aurrera giza eskubideen urraketa egiaztatuen sailkapena eta kuantifikazioa egitea zen beraien helburua, eta torturaren arazoaren inguruko zenbait datu bildu ziren lan horretan. Esaterako, 1960/78 aldian poliziaren zaintzapean ziren 3 lagunen heriotza (eta beste 2 kasu daude ikertzeke); atxilotuta zeudela ospitaleratu behar izan zituzten hainbat eta hainbat lagun, 6 lagunen heriotza atxilotuta zeudela 1979/2103 aldian (gehi ikertu beharreko beste sei heriotza). Komisariatik igaro ondoren ospitaleratu behar izan zituzten 124 pertsonaren kasuak ere bildu zituzten txosten horrek, bai eta 31 lagun torturatzeagatik epaitu eta zigortu zituzten segurtasun-indarretako 62 agentek jasotako 19 zigor epaiak ere (horietako 27 gerora barkatuak).

Kontrastaturiko behar beste daturik ez dagoela eta jarrerak denetarikoak direla dio, halaber: batzuek ukatu egiten dituzte eta beste batzuek, berriz, arrunta eta orokorra izan dela diote eta 10.000 kasu ere zenbatzen dituzte. 1960-2013 aldian 5.500 salaketa daudela egiaztatu du txostenak (salaketa judizialak eta komunikabideetan egindako salaketa publikoak batuta). Horrek guztiak agerian uzten du gehiago ikertu behar dela.

Hori ikusirik, hau gomendatu zuen lantalde honek: *«Txostenean egiaztatu bezala, tortura-kasuen inguruko datuen eskuragarritasuna dela-eta eta horiek ikertzeko izan ohi diren zailtasunak aintzat hartuta, auzi-psikologiaren arloko irizpideetan oinarrituta, Istanbulgo Protokoloa izeneko metodoari jarraikiz, egin dadila tortura-salaketen fidagarritasun-azterketa bat. Halaber, horren osagarri, egin dadila 1978 eta 2013 bitarteko tortura-salaketek epaitegietan izan dituzten gora-behera guztiei buruzko txosten bat.»*

Proposamen horiek oinarri hartuta, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak berrikuste-lan hau enkargatu zion giza eskubideen urraketa larrietan, tortura eta tratu txarrak barne, estatuan nahiz nazioartean esperientzia duten ikertzaileen talde profesional bati.

Lehen helburua da lehen aipatu ditugun kezka -elementu horietan (salaketa ugari, zentzuzko zalantzak eta egiantza) sakontzea (dauden informazio-iturriak berrikusita), hartara torturaren inguruko ikerketa lana ondo oinarritzen

---

<sup>7</sup> Hemen kontsulta daiteke:

[http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/3215/informe\\_base\\_eu.pdf?1371196810](http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/3215/informe_base_eu.pdf?1371196810)

laguntzeko. Halaber egingo dira azterketa kualitatibo batzuk informazioaren, lekukotzen eta dokumentatutako kasu askoren txostenen sendotasuna ebaluatzeko, gaia ikertzeko nazioartean erabiltzen diren protokoloei jarraikiz. Azterketaren emaitzak lan hau amaitzen denean argitaratuko diren ondorio eta gomendioen artean jasoko dira.

## **2.- Helburuak**

Helburu orokorrak:

1. Euskadin 1960 eta 2013 bitartean izandako tortura eta tratu txarren inguruko azterketa zientifiko bat egitea, fenomeno horrek garaian-garaian zer eragin izan zuen argitzearen, hartara haren garrantzia eta pertsonengan zein gizataldeengan izan zuen inpaktua ezaugarritu ahal izateko.
2. Identifika daitezkeen torturen eta tratu txarren biktimen lekukotza eta esperientzia analizatzea eta ezagutaraztea, giza eskubideen urraketak pairatu arren orain arte aintzatespenik merezi izan ez duten biktima direnez.
3. Garia guztietan justiziak halako kasuak ikertzeko izan dituen oztopoen mekanismoak aztertzea eta ezagutaraztea, eta gaur egun ikertzeko eta prebenitzeko zer berme behar diren aztertzea eta ezagutaraztea.
4. Biktimak aintzatesteko, haiei erreparazioa egiteko eta aurrerantzean halakorik berriz ez gertatzeko zereginean aplika litezkeen politiken inguruko elementu eta ondorioak aurkeztea, nazioarteko estandarrei jarraikiz.

### 3.- Proiektuaren faseak, metodologia eta lantaldea

Lan hau egiteko bost azterketa osagarri egin behar direla jo da.

- Horietako lehenak lan honen oinarriak garatzea du zeregin nagusia. Torturaren eta tratu txarren prebalentziari buruz eskura dagoen informazio dokumentalaren analisia bilduko du, bai eta epaitegi-ikerketak halako kasuetan ikertu diren elementuen analisia ere.
- Bigarren azterlanak lehen eta bigarren mailako iturrietan den tortura- eta tratu txarren kasuei buruzko informazio guztia erauziko du. Ahal den kasuetan, biktimekin berekin harremana edukiko da esandako iturri dokumentaletan bildutako informazioa berresteko. Hartara, diren salaketan eta haien inguruan dagoen dokumentazioaren-irismenaren ikuspegi orokor bat izango dugu.
- Bildutako salaketetatik erauzitako 200 kasu adierazgarriren inguruko ikerketa xehea egingo du hirugarren azterlanak. Horietan elkarrizketa sakonak egingo dira Nazio Batuen Giza Eskubideen Goi-komisarioak Tortura eta Tratu Txarrak Ikertzeko egindako protokoloa aplikatuta. Lekukotzen, bestelako froga dokumentalen eta ondorio fisiko eta psikologikoen osasun-azterketa eta azterketa psikologikoen sendotasunaren neurria emango du azterlan honek.
- Gainera, kasu horietatik abiatuta, torturatzailen biktimen kontakizunaren eta esperientzien azterketa osagarri bat egingo da; 30-50 bat kasu hautatuta eta horietan pairatutako kalteei, gizartearen eta erakundearen erantzunari eta torturak biktimen bizitzan izan duen eraginari buruzko azterketa konparagarri bat, hain zuzen.
- Azkenik, lan horren ondorio eta gomendioak jasoko dira egindako azterketa guztiak aintzat hartuta, nazioartean torturaren eta tratu txarren ikerketaren, aintzatespenaren, erreparazioaren eta prebentzioaren alorreko esperientzia konparatuaren argitan.

Ekintza guztiak zuzentzeko eta koordinatzeko, lantalde bat eratu da Euskal Herriko Unibertsitateko Kriminologiaren Euskal Institutuaren baitan:

- Francisco Etxeberria, Medikuntzan doktorea. Lege eta Auzitegiko Medikuntzan osagile espezialista. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle titularra.
- Benito Moretin, Medikuntzan doktorea. Lege eta Auzitegiko Medikuntzan osagile espezialista. Auzitegiko mediku titularra.
- Carlos Martín Beristain, Medikuntzan doktorea. Osasunaren Psikologian osagile espezialista
- Laura Pego. Zuzenbidean lizentziaduna. Kriminologian masterra Kriminologiaren Euskal Institutuko ikertzailea

Lan hau egiteko, eta ikerketak dirauen bitartean lantoki propio bat izango du lantaldeak Euskal Herriko Unibertsitatearen Ibaetako Campuseko Carlos Santamaria zentroan<sup>8</sup>.

### **3.1.- Lanaren oinarria Tortura ez zigortzea justifikatzen duten elementuak, Estatuaren botereen berme-elementuen aldean. Torturak berean dirauela adierazten duten zentzuzko zantzuak, halakorik ez dagoela adierazten dutenen aldean.**

HELBURUAK: Tortura prebenitzeko balio duten berme-elementuak eta tortura estaltzeko baliatzen diren elementuak berrikustea. Torturak berean dirauela adierazten duten eta halakorik ez dagoela adierazten duten zentzuzko zantzuak berrikustea.

METODOLOGIA: Lege-arauak eta dokumentuak berrikustea: gaiari heldu izan dioten arauak, epaiak, txostenak, azterlanak...

PRODUKTUA: Txostena. 50 orrialdekoa.

### **3.2.- Arazoaren muntara globalki hurbiltzea: errolda bat egitea.**

HELBURU NAGUSIA: Aztertutako aldiaren epaitegietan nahiz bestela izandako tortura-salaketen errolda bat egitea.

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Torturaren eraginaren analisi epidemiologikoa.
- Tortura-salaketa banaketa atxiloketa-garaiaren, sexuaren, adinaren, lurraldearen, atxilotzeko arrazoiaren, atxiloketaren ondorengo egoera legalaren eta atxiloketa egin zuen polizia-kidegoaren arabera.

EGIN BEHARREKO LANAK:

- 1.- Datu-basea diseinatzea.
- 2.- Lehen mailako informazio-iturriekiko harremana.
- 3.- Informazioa biltzea eta datu-basera iraultzea
- 4.- Kasu guztiei buruzko informazioa artxibatzea
- 5.- Beharrezkoa jotzen den kasuetan, salaketak egiaztatzea
- 6.- Datuak gurutzatzea eta aztertzea
- 7.- Salaketa berriak biltzea
- 8.- Txostena bera idaztea

---

<sup>8</sup> Gipuzkoako Campuseko Errektoreordearen erabakiz.

### **3.3.- Salaketen sinesgarritasun globalaren balorazioa.**

#### **3.3.1.- Estatistikaren ikuspegitik. Espediente judizialak eta salaketa sozialak berrikustea.**

HELBURUA: Epaitegietako espedienteetan diren agiri judizialak oinarri hartuta, estatistikoki zeharka heltzea. Tortura-metodoen maiztasunaren banaketa aldagai demografiko, prozesal eta kriminologikoeen arabera. Patroi bereizgarriak eta aldagai independenteen arabera arrisku-faktoreak egiaztatzea. Aurkikuntzak sendoak edo hutsalak diren, analizatutako materialean oinarrituta.

Aztertu beharreko materiala:

- Espediente judizialak eta salaketa sozialetan bildutako lekukotzak 100 kasu aztertuko dira garai bakoitzeko; 400 kasu, guztira.
- Instrukzioko Epaitegi Nagusiak eskubideak urratu egin direla dioten egindako adierazpenak. 100 kasu aztertuko dira garai bakoitzeko; 400 kasu, guztira.
- Auzitegiko medikuntza-txostenak. 100 kasu aztertuko dira garai bakoitzeko; 400 kasu, guztira.

Azter-material bakoitzean atxilo desberdinak hautatuko dira.

Lau garaiak bereizi egingo dira (beste batzuk izan litezke, ikerketan zehar zer aurkitzen den):

- 1978 baino lehenago.
- 1978tik 1990era bitartean.
- 1991tik 2000ra bitartean.
- 2001etik 2013ra bitartean.

EGIN BEHARREKO LANAK:

- 1.- Datu-basea diseinatu.
- 2.- Espedienteak aurkitu.
- 3 – Dokumentazioa eta datuak bildu.
- 4.- Datuak irauli.
- 5.- Aldagaiak gurutzatu eta datuak analizatu.
- 6.- Txostena bera idatzi.

#### **3.3.2.- Fidagarritasunaren aditu-azterketen aldetik. Istanbulgo Protokoloa**

HELBURUA: Osasun-azterketa eta azterketa psikologikoaren eta tortura edo tratu txarren salaketaren arteko konsistentzia ebaluatuko da. Aurreko atalean analizatutako 400 kasuetatik, 200 ausaz hautatuko dira lagin gisa.



## EGIN BEHARREKO LANAK:

- 1.- Kasuak hautatu.
- 2.- Istanbulgo Protokoloa aplikatzen esperientzia duten 2 psikologok egingo dituzte peritazioak.
- 3.- Elkarrizketak transkribatu.
- 3.- Emaizak aztertu.
- 4.- Txostena bera idatzi

### **3.4.- Kasu adierazgarri batzuei buruzko azterketa kualitatiboa**

Tratu txarren eta torturen arazoa ondo ezagutzeko, kasu adierazgarri batzuen – lantaldeak informazio sendoa eta fidagarria baduela jotzen duelako aukeratuko ditu– berriazko azterketa espezifiko bat egingo da. Azterketa kuantitatiboan aurkitutako joera eta tipologiak izango dira haren gaia, eta aldagai gisa torturaren garaia, ezaugarriak, sexua, lege-esparrua, ikerketa judiziala noraino iritsi zen, epaia eta atxiloketa-mota aztertuko ditu, besteak beste. Kasu horiek, 30-50 bat, esperientzien kontakizun narratibo eta konparagarri batera bilduko dira, hartara gizarteak biktimen esperientziak entzun eta hedatu ahal izan ditzan.

Azterketa kualitatibo horrek aukera emango du biktimen giza esperientzian, jasotako kaltean, gizartearen eta erakunde publikoen erantzunean eta epaitegien ikerketaren esperientziarekin lotutako kontuetan sakontzeko. Torturaren inplikazio eta ondorioei buruzko ikuspegi orokorra emango du, datu estatistikoetatik eta kasuen balorazio mediko eta psikologikotik gaindi.

### **3.5.- Ondorioak eta gomendioak.**

HELBURUA: Azken txostena idaztea. Ondorioak eta gomendioak.

## 4.- Aurrekontua

### I. Lanaren oinarriari buruzko txostena prestatu

- Informazioaren bilaketa eta azterketa
  - Txostena bera idaztea
- 4.000

### II. Salaketen errolda bat egitea

- Datu baseen diseinua
  - Lehen mailako iturriekin hartu-emana
  - Informazio bilketa eta datuak jasotzea
  - Dokumentazioa artxibatzea
  - Salaketen balidazioa beharrezko jotzen denean
  - Salaketa berriak ezagutzea
  - Datuak gurutzatzea eta aztertzea
  - Txostena bera idaztea
- 28.000

### III. Beste gastu batzuk

- Ordenagailua
  - Materiale suntsikorra
  - Bidaiak eta dietak
  - Bestelakoak
- 10.000

**GUZTIRA (lehenengo zatian) 42.000€**

## 5.- Kronograma

A.- TORTURA EZ ZIGORTZEA JUSTIFIKATZEN DUTEN ELEMENTUAK, ESTATUAREN BOTEREEN BERME-ELEMENTUEN aldean. TORTURAK BEREAN DIRAUELA ADIERAZTEN DUTEN ZENTZUZKO ZANTZUAK, HALAKORIK EZ DAGOELA ADIERAZTEN DUTENEN aldean.

B.- ARAZOAREN MUNTARA GLOBALKI HURBILTZEA: ERROLDA BAT EGITEA.

C.- SALAKETEN SINESGARRITASUN GLOBALAREN BALORAZIOA. ESTADISTIKAREN IKUSPEGITIK: EPAITEGIETAKO ESPEDIENTEAK BERRIKUSTEA

D.- SALAKETEN SINESGARRITASUN GLOBALAREN BALORAZIOA. FIDAGARRITASUNAREN ADITU-AZTERKETEN ALDETIK. ISTANBULGO PROTOKOLOA.

E.- KASU ADIERAZGARRI BATZUEI BURUZKO AZTERKETA KUALITATIBOA

F.- ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.

	2014						2015											2016									
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27
A		X	X	X	X																						
B	X	X	X	X	X	X	X	X																			
C					X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X						
D					X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X						
E																		X	X								
F																							X	X	X	X	X

**Azken oharra:** ikerketa-proiektua Euskal Herriko Unibertsitateko Etika Batzordeari aurkeztuko zaio, iritzia eman diezaion.



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
The University of the Basque Country

**Instituto Vasco de Criminología  
Kriminologiaren Euskal Institutua**

**(IVAC-KREI)**

## **PROPUESTA PROYECTO INVESTIGACIÓN TORTURA**

Junio 2014

### **INDICE**

- 1.- Justificación del proyecto.
- 2.- Objetivos.
- 3.- Fases del proyecto, metodología y equipo.
  - 3.1.- Fundamento del trabajo.
  - 3.2.- Aproximación global a la dimensión del problema: elaboración de un censo.
  - 3.3.- Valoración de la credibilidad global de las denuncias.
    - 3.3.1.- Abordaje estadístico. Revisión de expedientes judiciales y denuncias sociales.
    - 3.3.2.- Abordaje pericial de la fiabilidad. Protocolo de Estambul.
  - 3.4.- Estudio cualitativo sobre casos emblemáticos.
  - 3.5.- Conclusiones y recomendaciones.
- 4.- Presupuesto por acciones y resumen.
- 5.- Cronograma.

## 1.- Justificación del proyecto.

Principalmente a partir de la aprobación de la Ley 32/1999 de solidaridad con las víctimas del terrorismo<sup>9</sup>, se han venido dando numerosas iniciativas en el desarrollo de una política de reconocimiento y reparación a las víctimas de la violencia. En la Comunidad Autónoma Vasca, desde que se iniciaron los actos de reconocimiento públicos por parte del Gobierno vasco a las *víctimas del terrorismo*, especialmente a las víctimas de ETA con los gobiernos del lehendakari Sr. Juan José Ibarretxe (2005-2009) y posteriormente el lehendakari Sr. Patxi López (2009-2012), el reconocimiento de estas y otras víctimas de graves violaciones de derechos humanos ha formado parte del debate público. Todo ello puso de manifiesto la necesidad de realizar también un reconocimiento hacia otras víctimas no consideradas hasta entonces en la política pública, como las víctimas de violaciones de derechos humanos causadas por agentes de las fuerzas de seguridad del Estado.

En la legislatura anterior (2009-2012), el Gobierno vasco con el apoyo de varias fuerzas políticas en el Parlamento Vasco, aprobó el Decreto 107/2012, *de declaración y reparación de las víctimas de sufrimientos injustos como consecuencia de la vulneración de sus derechos humanos, producida entre los años 1960 y 1978 en el contexto de la violencia de motivación política vivida en la Comunidad Autónoma del País Vasco. De esta forma se daba cobertura y se ofrecía un marco de reconocimiento a víctimas de fuerza policiales que habían sufrido violaciones al derecho a la vida o a la integridad física y psicológica, entre 1960 y 1978. El amplio acuerdo político logrado incluía también el desarrollo de un nuevo marco legal para estas mismas víctimas de periodos posteriores a 1979 que está aún por desarrollar. En este contexto, el reconocimiento de la amplitud y las secuelas de los casos de tortura y malos tratos llevados a cabo por agentes del Estado ha formado parte del debate político y de la necesaria construcción de una cultura de derechos humanos en nuestro país.*

En los últimos 30 años los informes de Amnistía Internacional<sup>10</sup>, del Comité de Prevención de la tortura del Consejo de Europa<sup>11</sup>, los informes de Relatores

---

<sup>9</sup> Norma de ámbito estatal. Ese mismo año se aprobará también el Real Decreto 1974/1999, de 23 de diciembre, que aprueba el Reglamento de la Real Orden de Reconocimiento Civil a las Víctimas del Terrorismo

<sup>10</sup> El primer informe de Amnistía sobre el Estado español se refería a las torturas en las cárceles en 1972. En 1984 una misión de AI que visitó España en los meses de mayo/junio de 1983 pudo confirmar el uso persistente de la tortura y malos tratos” (Informe *Tortura*, 1984, p. 187). En 2007 Amnistía Internacional publicó su informe. *España: la sal en la herida. Impunidad policial*. Y dos años después en 2009 una actualización del mismo. En 2004, publicó su informe sobre *España: acabar con la doble injusticia. Víctimas de tortura y malos tratos sin reparación*.

<sup>11</sup> Ejemplo de ello son los informes realizados por el Comité después de sus visitas a España: del 19 septiembre al 1 octubre de 2007; del 12 al 19 de diciembre de 2005; o del 17 al 19 de enero de 1997, entre otras.

Especiales de Naciones Unidas<sup>12</sup> o las observaciones del Comité contra la Tortura de Naciones Unidas que daban cuenta de denuncias y estas prácticas, han recomendado no solo la puesta en marcha de medidas preventivas sino de una adecuada investigación efectiva en el campo judicial y social, así como la necesidad de políticas de reconocimiento y reparación a sus víctimas. La ausencia de investigación judicial efectiva, en algunos casos, ha sido incluso reconocida por el Tribunal Europeo de Derechos Humanos. También en diferentes épocas, sectores de intelectuales<sup>13</sup> o jueces, ayuntamientos e investigaciones independientes señalaron la frecuencia de la práctica de la tortura y la necesidad de prevención e investigación efectiva.

En este sentido, el Gobierno vasco, en su Plan de Paz y Convivencia 2013-16 ha señalado la importancia de hacer un diagnóstico de la situación en que se encuentra nuestra sociedad en esta materia. Ello nos permitirá poner luz sobre estas y otras violaciones de derechos humanos y hacer efectivos los principios de verdad, justicia y reparación consagrados en el derecho internacional de los derechos humanos.

Como consecuencia de todo ello, la Secretaría General de Paz y Convivencia encarga la realización de una investigación rigurosa e independiente sobre la incidencia real del fenómeno de la tortura en diferentes épocas, para posteriormente poder adoptar las medidas de reconocimiento y prevención que resulten pertinentes.

En las consideraciones generales sobre el estudio encargado, se señaló la importancia de un abordaje científico de esta problemática, se establecieron dos grandes periodos independientemente de otras periodizaciones posteriores (tardo franquismo y periodo posterior a la aprobación de la Constitución), recogiendo<sup>14</sup> que:

*“El punto de partida de esta iniciativa y de la investigación que se encargará tomará como base el contenido del Informe de Abordaje Científico sobre la tortura que la Dirección de Derechos Humanos del Gobierno Vasco entregó al Parlamento Vasco en marzo de 2009. Sobre esta base, los criterios para impulsar esta iniciativa son los siguientes:*

---

<sup>12</sup> Destacamos entre otros: Informe del Relator Especial sobre la cuestión de la tortura Theo Van Boven, visita a España, 2004; Informe del Relator Especial sobre la promoción y la protección de los derechos humanos y las libertades fundamentales en la lucha contra el terrorismo, Martin Scheinin, visita España, 2008

<sup>13</sup> Por ejemplo, en 1983 en la llamada “Propuesta estabilizadora contra la tortura”, José Luis L. Aranguren, Carlos Castilla del Pino, Gonzalo Martínez-Fresneda, José María Mohedano, Marc Palmés, José Ramón Recalde, Rafael Sánchez Ferlosio y Fernando Savater, señalaban: “Los abajo firmantes, ciudadanos de conciencia política independiente. Considerando que hay sobrada evidencia de que en España se practica la tortura en comisarías, reformatorios y cárceles, de manera frecuente y extendida...”.

<sup>14</sup> Ver Ficha de la iniciativa 6. “Investigación y acción sobre la tortura” del Plan de Paz y Convivencia 2013-16, página 46

- *El estudio distinguirá en su elaboración y proyección dos periodos diferentes: el primero, desde 1960 hasta 1978; y el segundo, desde 1978 hasta 2013.*
- *Emplear como herramienta de referencia el “Protocolo de Estambul” y más concretamente el “Manual para la investigación y documentación eficaces de la tortura y otros tratos o penas crueles o degradantes” de la Oficina del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos.*
- *Propiciar la colaboración y el asesoramiento de otras instituciones locales como el Ararteko y universitarias como el IVAC/KREI (Instituto Vasco de Criminología).*

Además de los antecedentes señalados, contamos con el Informe-base de vulneraciones de derechos humanos en el caso vasco (1960-2013)<sup>15</sup> elaborado por Manuela Carmena, Jon Mirena Landa, Ramón Múgica, Juan M<sup>a</sup> Uriarte en junio de 2013 por encargo de la Secretaría General de Paz y Convivencia. Su objetivo era ofrecer una clasificación y cuantificación de las vulneraciones de derechos humanos constatadas desde 1960, en el contexto de la violencia con intencionalidad política padecida en nuestro país. Este trabajo recogió algunos datos sobre la problemática de la tortura, como por ejemplo: entre 1960/78 los casos de 3 personas muertas bajo custodia policial (y otros 2 por investigar) y numerosas personas hospitalizadas en el periodo de detención, así como 6 casos de personas muertas en el periodo 1979/2013 durante el periodo de detención (6 casos más que necesitan investigación). Además se señala la existencia de 124 personas hospitalizadas tras su paso por comisaría, y de 19 sentencias condenatorias por torturas que afectan a 31 personas torturadas, contra 62 agentes de las fuerzas de seguridad, 27 de los cuales fueron indultados.

También señala que no hay datos contrastados hasta la actualidad de las denuncias de tortura y malos tratos, y que las actitudes políticas van desde la negación hasta su consideración de práctica generalizada considerando que existirían 10.000 casos. Desde 1960 hasta 2013 el informe recoge que existe constancia de 5.500 denuncias sumando las judiciales y las denuncias públicas recogidas en medios de comunicación. Todo ello manifiesta la necesidad de mayor investigación.

A la vista de ello, este grupo de trabajo recomendó que *“Dadas las peculiares dificultades que, como se constata en el Informe, concurren en el caso de la tortura respecto a la disposición de datos y a la investigación de casos, realizar un estudio sobre la fiabilidad de las denuncias de torturas con base en criterios de tipo psicológico-forense según el denominado protocolo de Estambul. Complementariamente, realizar un informe sobre el conjunto de avatares judiciales de las denuncias de tortura desde el año 1978 hasta el año 2013”*.

---

<sup>15</sup> Se puede consultar en:

[http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/3214/informe\\_base\\_es.pdf?1371196800](http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/3214/informe_base_es.pdf?1371196800)

Tomando como base estas propuestas, la Secretaría General de Paz y Convivencia del Gobierno Vasco encomendó el presente trabajo de revisión a un equipo profesional con experiencia en la investigación de graves violaciones de derechos humanos, incluyendo los casos de tortura y malos tratos, en el ámbito nacional e internacional.

El primer objetivo es profundizar (mediante una revisión de las fuentes de información existentes) en los elementos de preocupación en materia de tortura antes comentados (denuncias abundantes, dudas razonables e indicios de veracidad) que ayuden a fundamentar el trabajo de investigación sobre la tortura. Asimismo se realizarán varios estudios cualitativos que valoren la consistencia de la información, testimonios e informes en un número importante de casos documentados, siguiendo los protocolos internacionales de investigación en la materia. Los resultados del estudio serán parte de las conclusiones y recomendaciones publicadas al finalizar este trabajo.

## **2.- Objetivos.**

Objetivos generales:

5. Realizar un estudio científico sobre la tortura y malos tratos en Euskadi entre 1960 y 2013 con el fin de desvelar la incidencia real de este fenómeno en los diferentes periodos o épocas, de forma que sirva para caracterizar su importancia, el impacto individual o colectivo.
6. Analizar y dar a conocer las experiencias de las víctimas de torturas y malos tratos que se puedan identificar, como parte de esas víctimas de violaciones de derechos humanos que no han tenido un reconocimiento.
7. Analizar y dar a conocer los mecanismos que han impedido o dificultado una investigación judicial efectiva en diferentes épocas, y las necesarias garantías de investigación y prevención en la actualidad.
8. Proporcionar elementos y conclusiones respecto a las posibles políticas en materia de reconocimiento a las víctimas, reparación y prevención, siguiendo los estándares internacionales en esta materia.



### **3.- Fases del proyecto, metodología y equipo.**

Para llevar a cabo este trabajo se considera necesario realizar cinco estudios complementarios.

- El primero de ellos incluye el desarrollo de los fundamentos de este trabajo. Se trata de un informe que recoge el análisis de la información documental disponible sobre la prevalencia de malos tratos y torturas, o los elementos de analizar la investigación judicial en estos casos.
- Un segundo estudio recogerá toda la información existente en diferentes fuentes primarias y secundarias de casos de tortura y malos tratos. De los casos que sea posible se tratará de tener un contacto con las víctimas para validar la información existente a través de dichas fuentes documentales. Ello permitirá tener un panorama general de las denuncias existentes y el grado de documentación que existe sobre ellas.
- El tercer estudio se centra en una investigación sobre 200 casos seleccionados de forma representativa entre las denuncias recogidas, en los que se puedan realizar entrevistas en profundidad aplicando el Protocolo para la Investigación de la Tortura y Malos Tratos del Alto Comisionado para los Derechos Humanos de NNUU. Este estudio proporcionará información sobre el grado de consistencia de los testimonios, otras pruebas documentales y el examen médico o psicológico de las secuelas y relatos.
- Además, a partir de estos casos se realizará un estudio complementario del relato y las experiencias de las víctimas de tortura seleccionando unos 30/50 casos en los que un estudio comparativo permita apreciar las consecuencias sufridas, las respuestas sociales e institucionales en los mismos, así como el impacto en la vida de las víctimas.
- Por último, se recogerán las conclusiones y recomendaciones de este trabajo teniendo en cuenta los distintos estudios realizados, a la luz de la experiencia comparada internacional en materia de investigación, reconocimiento, reparación y prevención de la tortura y malos tratos.

Para ello se ha configurado un equipo que dirige y coordina todas las acciones en el ámbito del Instituto Vasco de Criminología de la Universidad del País Vasco (UPV-EHU):

- Francisco Etxeberria, Doctor en Medicina. Médico Especialista en Medicina Legal y Forense. Profesor Titular de la Universidad del País Vasco.
- Benito Moretin, Doctor en Medicina. Médico Especialista en Medicina Legal y Forense. Médico Forense Titular.
- Carlos Martín Beristain, Doctor en Medicina. Médico Especialista en Psicología de la Salud.
- Laura Pego. Licenciada en Derecho. Máster en Criminología. Investigadora del Instituto Vasco de Criminología.

Para la realización de este trabajo se dispondrá de un espacio propio durante el tiempo que dure la investigación en el Centro Carlos Santamaría del Campus de Ibaeta de la Universidad del País Vasco (UPV-EHU)<sup>16</sup>.

### **3.1.- Fundamento del trabajo. Elementos que justifican la impunidad de la tortura versus elementos de garantía de los poderes del Estado. Indicios razonables de la persistencia de la tortura versus indicios de la inexistencia de la tortura.**

**OBJETIVOS:** Revisión de los elementos garantistas en la prevención de la tortura y de aquellos que dan cobertura a estas prácticas. Revisión de los indicios razonables que avalan la existencia o inexistencia del fenómeno de la tortura

**METODOLOGÍA:** Revisión legislativa y documental: normas, sentencias, informes, estudios, etc. que abordan esta cuestión.

**PRODUCTO:** Informe. Extensión 50 páginas

### **3.2.- Aproximación global a la dimensión del problema: elaboración de un censo.**

**OBJETIVO PRINCIPAL:** Elaboración de un censo de denuncias judiciales o sociales de tortura del periodo de tiempo objeto de estudio

**OBJETIVOS ESPECÍFICOS:**

- Análisis epidemiológico de la incidencia de tortura
- Distribución de las alegaciones de tortura por época de detención, sexo, edad, provincia de detención, motivo de detención, situación legal tras la detención y cuerpo policial que realizó el arresto

**TAREAS A REALIZAR:**

- 1.- Diseño de la base de datos
- 2.- Contacto con fuentes primarias de información
- 3.- Recogida de información y volcado de la misma en la base
- 4.- Archivo de la documentación relativa a cada caso
- 5.- Validación de las denuncias en los casos que se considere necesario
- 6.- Cruce y análisis de los datos
- 7.- Recogida de nuevas denuncias
- 8.- Redacción del informe

---

<sup>16</sup> Por acuerdo adoptado por la Vicerrectora del Campus de Gipuzkoa.

### **3.3.- Valoración de la credibilidad global de las denuncias.**

#### **3.3.1.- Abordaje estadístico. Revisión de expedientes judiciales y denuncias sociales.**

OBJETIVO: Abordaje estadístico transversal sobre la base de documentación judicial obrante en los expedientes judiciales. Distribución de la frecuencia de los métodos de tortura en relación a variables demográficas, procesales y criminológicas. Comprobación de patrones diferenciales y factores de riesgo en razón de variables independientes. Consistencia o inconsistencia de hallazgos en razón del material analizado

Material a analizar:

- Testimonios recogidos en expedientes judiciales y denuncias sociales Se realizará un análisis de 100 casos por época, con un total de 400 casos.
- Declaraciones de vulneraciones de derechos ante el Juzgado Central de Instrucción. Se realizará un análisis de 100 casos por época, con un total de 400 casos
- Informes médico forense. Se realizará un análisis de 100 casos por época, con un total de 400 casos

Se seleccionarán detenidos diferentes para cada material de estudio.

Se diferenciarán 4 épocas, que pueden ser diferentes en función de los hallazgos del estudio:

- Hasta 1978
- De 1978 a 1990
- De 1991 a 2000
- De 2001 a 2013

TAREAS A REALIZAR:

- 1.- Diseño de la base de datos
- 2.- Localización de los expedientes
- 3.- Recogida de documentación y datos
- 4.- Volcado de datos
- 5.- Cruce de variables y análisis de datos
- 6.- Redacción del informe

#### **3.3.2.- Abordaje pericial de la fiabilidad. Protocolo de Estambul.**

OBJETIVO: Valoración de la consistencia entre los datos del examen médico y psicológico y las alegaciones de malos tratos/tortura de la persona examinada. Muestreo aleatorio sobre 200 casos, seleccionados entre los 400 analizados en el apartado anterior.

## TAREAS A REALIZAR:

- 1.- Selección de los casos
- 2.- Realización de los peritajes por 2 psicólogos con experiencia en la aplicación del Protocolo de Estambul
- 3.- Transcripción de entrevistas
- 3.- Análisis de los resultados
- 4.- Redacción del informe

### **3.4.- Estudio cualitativo sobre casos emblemáticos.**

Para el conocimiento de la problemática de los malos tratos y torturas se realizará un estudio específico de un grupo de casos representativos y que el equipo determine que cuenta con información consistente y fiable sobre las diferentes tendencias o tipologías encontradas en el estudio cuantitativo, considerando épocas, características de la tortura sufrida, género, marco legal, grado de investigación judicial o sentencia, tipo de detenciones, entre otros. Dichos casos, entre 30 y 50, serán incluidos en un estudio narrativo y comparativo de las diferentes experiencias, de forma que las experiencias de las víctimas puedan ser escuchadas y difundidas en la sociedad.

Este estudio cualitativo permitirá profundizar en la experiencia humana de estas víctimas, los impactos sufridos, las reacciones sociales e institucionales, así como los aspectos relativos a la experiencia de investigación judicial. Proporcionará un panorama general de las implicaciones y consecuencias de la tortura, más allá de los datos estadísticos o la valoración médica o psicológica de los casos.

### **3.5.- Conclusiones y recomendaciones.**

OBJETIVO: Redacción del informe final. Conclusiones y recomendaciones.

## 4.- Presupuesto

Este presupuesto corresponde a la primera fase de la investigación que se desarrollará durante el ejercicio 2014. En esta primera etapa, la información generada en la base de datos permitirá dimensionar con precisión el resto del estudio y su presupuesto detallado.

### I. Elaboración del informe sobre el fundamento del trabajo

- Búsqueda y análisis de la información
- Redacción del informe 4.000

### II. Elaboración de un censo de denuncias

- Diseño de la base de datos
- Contacto con fuentes primarias
- Recogida de información y volcado de datos
- Archivo de documentación
- Validación de denuncias cuando se considere necesario
- Recogida de nuevas denuncias
- Cruce y análisis de los datos
- Redacción del informe 28.000

### III. Otros gastos

- Ordenador
- Material fungible
- Viajes y dietas
- Otros 10.000

**TOTAL (Primera fase) 42.000€**

## 5.- Cronograma

A.- ELEMENTOS QUE JUSTIFICAN LA IMPUNIDAD DE LA TORTURA versus ELEMENTOS DE GARANTIA DE LOS PODERES DEL ESTADO. INDICIOS RAZONABLES DE LA PERSISTENCIA DE LA TORTURA versus INDICIOS DE LA INEXISTENCIA DE LA TORTURA.

B.- APROXIMACIÓN GLOBAL A LA DIMENSIÓN DEL PROBLEMA: ELABORACIÓN DE UN CENSO.

C.- VALORACIÓN DE LA CREDIBILIDAD GLOBAL DE LAS DENUNCIAS. ABORDAJE ESTADÍSTICO: REVISIÓN DE EXPEDIENTES JUDICIALES.

D.- VALORACIÓN DE LA CREDIBILIDAD GLOBAL DE LAS DENUNCIAS: ABORDAJE PERICIAL DE LA FIABILIDAD. PROTOCOLO DE ESTAMBUL.

E.- ESTUDIO CUALITATIVO SOBRE CASOS EMBLEMÁTICOS.

F.- CONCLUSIONES Y RECOMENDACIONES.

	2014						2015											2016										
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28
A		X	X	X	X																							
B	X	X	X	X	X	X	X	X																				
C					X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X							
D					X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X							
E																		X	X									
F																					X	X	X	X	X	X	X	

**Nota final:** este proyecto de investigación va a ser presentado al Comité de Ética de la Universidad del País Vasco para su consideración.